

Izena: HOMINEX GLOBAL S.A.

Helbidea: PARQUE TECNOLÓGICO, 804 116-117

Herria: 48160 DERIO

E-posta: contacto@hominex.com

Web orria: www.hominex.com

Produktuaren deskripzioa. Zerbitzua.

Bezere bakoitzarentzako berrikuntzako irtenbideak sortzen ditugu, aholkularitzako zerbitzuak eta hominex-eko berrikuntza plataforma konbinatuz; gure irtenbideak era guztietako erakundeetarako egokitzen ditugu, beti ere horien kultura, erronkak, lan egiteko erak kontuan hartuta. Berrikuntza eguneroko ataza bihurtzea lortzen dugu.

Lehenengo eta behin, euren erakundea berrikuntzarako prestatzeko laguntza ematen diegu (taldea, azpiegiturak, lehenetsunak ezartzea eta erronkak finkatzea) gero erakundeari berari sustatzeko berrikuntzako bideetan laguntza emanez. Emaitzak neurtu egiten dira eta prozesua era iraunkorrean hobetzen da.

Hominexeko profesionalak abangoardiako merkatuetan dugun esperientziatik abiatuta, gure metodologia eta berrikuntzarako prozesua erakundeetan eta horietan lan egiten duten pertsonetan pentsatuta garatu dugu. Kontuan hartu ditugu enpresen erronkak, horien barruan aldi berean gertatzen diren kultura desberdinak, lankidetzarako dinamikak, berrikuntzarako eragozpenak, zuzendari eta profesionalen ikuspegia eta beharrezkoak, ... gero "zilegi diren irtenbideak" sortzeko, eta, hori ez ezik, emaitzak emango dituztenak, berrikuntzaren ataza eguneroko jardura bihurtuz, aldaketa handiegirik egiteko beharrezkoak gabe, irtenbide horiek erakundeek lan egiteko dituzten era desberdinei egokituz harik-eta berrikuntza iraunkorreko sistema eratu arte.

Merkatuaren deskripzioa.

Gure eskaintza gehiago, hobeto eta eragingarritasun gehiagorekin berritu nahi duten erakunde handi eta ertainetako profesional eta zuzendariak dira. Pertsona horiek bat datoz gure ikuspegiarekin, hau da, berrikuntzaren oinarria pertsonak direla eta prozesu horren barruan IKTek funtsezko zeregina dutela berritzeko prozesu sistematiko horren ezarpenari dagokionez. Zuzendari horiek jakin dakite ezinezkoa dela urte bat itxarotea ikusteko moduko emaitzak etorri arte eta erakundeetan egiten diren aldaketak gutxienean izan behar dutela gauzek funtzionatzen jarrai dezaten.

Oharrak.

• Nortzuk gara

Homi – nex: hominis nexus – Pertsonen arteko lotura esan nahi du (berritzeko asmoarekin).

Hominex enpresei euren berrikuntzarako gaitasuna lortzeko eta berrikuntza hori etekin maila altuenetara eramateko helburuan laguntzeko sortu den enpresa proiektua da.

Berrikuntzan duen esperientziarekin Hominex "berrikuntzaren kultura" bultzatzeko sortu da.

• Helburua

"Erakundeek gehiago, hobeto eta eragingarritasun handiagoarekin berritzeko aukera izan dezatela".

Hominexen helburua erakunde batek berez berrikuntzarako duen gaitasuna hobetzea da, bertako pertsonen inplikazioa eta esku hartzea sustatuz eta, hori guztia, eragingarritasun mailarik altuenarekin.

• Ikuspegia

"Bere bezeroak diren erakunde eta sozietateentzat prozesuaren eragile estrategikoa izatea".

Toki berean egoteko arinago joan behar da eta egiten dena hobetu behar da. Besteak beste egun bizi dugun globalizazio faseko ezaugarriak diren aurrerakuntza tekniko eta zientifikoengatik, merkatuen irekieragatik eta garraio eta komunikazioetako kostuen murrizketagatik, erakundeek balioa sortzeko formula berriak egituratu behar dituzte lehiatzen jarraitzeko.

Berrikuntzak, ideia berrien ezarpenetik onurak ateratzeko aukera emanez, erakundeek egungo testuinguruan balio hori sortzeko duten era laburtzen du.

Hominexek berrikuntza ikuspegi oso zabaletik aztertzen eta lantzen du, erakundeei nork bere testuinguruan behar den tokietan berritzen lagunduz eta, beraz, jarduten duen sozietateen garapen eta aurrerakuntza bultzatuz.

Sortzeko urtea:

2005an.

Oraingo langileria:

6

Fakturazioa:

75.000 €